

## IKASTOLEN ELKARTEAREN BALORAZIOA

**Hezkuntza Sailak Salbatore Mitxelena ikastola  
bidegabeki zigortu du 140.000 eurokoisuna ezarriz.**

*2023an Zarauzko ikastolaren aurka abiatutako jazarpena eta murrizketak muturreraino eraman ditu Hezkuntza Sailak. Ondorioz, kalte kuantitatibo eta kualitatibo larriak sortu dizkio.*

*Hezkuntza Sailak ez du Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastola soilik zigortu. Jokabide honekin Ikastola mugimendu osoa zigortu du, 7 lurrealdeetan hedatzen den sare nazional bakarra.*

-----

Gaurko prentsaurrekoaren bitartez egindako salaketa dagokion testuinguruan kokatzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu lehendabizi, azken urteetan matrikulazio prozesuan egin diren aldaketen berri ematea eta aldaketa hauek eragin dituzten gertakariak azaltzea.

### **Matrikulazio prozesua, 2023tik hona:**

**2023ko urtarrilean**, Hezkuntza Saila lantzen ari zen hezkuntza legearen testuinguruan, 2023-2024 ikasturterako ikasleak matrikulatu eta onartzeko agindua argitaratu zen. Agindu horretan, aldaketaktxertatu zituen aurreko aginduekin alderatuta. Berrikuntza hauek, ustez **ikasle zaurgarrien banaketa orekatua egitea** eta **eskaintza eskaerara egokitzea** zuten helburu. Horretarako, lehen aldiz zaurgarritasun indizearen nondik norakoak eta baremaziorako irizpide berriak ezarri zituen. 2023ko matrikulazioa, beraz, irizpide eta helburu horien baitan aurrrera eraman zuen Hezkuntza Sailak, eta ikasleen onarpenerako baldintzak aldatu ziren.

Matrikulazio prozesu hori gorabeheratsua eta gatazkatsua izan zen oro har hezkuntza-komunitatean eta ikastoletan, eta 2023ko martxoan, matrikulazio prozesuan izandako gorabeherak zirela-eta, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Ikastolek batzarrean elkartuta hainbat puntu adostu genituen:

- Adostasuna adierazi genuen Hezkuntza Sailak Onarpen aginduan jasotako printzipio orokor eta helburuen inguruan.
- Adierazi genuen Hezkuntza saila ez zela betetzen ari 23/24 ikasturterako ikasleen onarpenerako aginduan ezarritako oinarrizko irizpideak .
- Azpimarratu genuen zaurgarritasun tasa finkatzeko prozesuaren gardentasun falta.
- Salatu genuen ikasleen fluxua ez zela modu orekatuan egiten ari.

Ondorioz, honako neurriak hartzea erabaki genuen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolok:

- **Familien fluxua gertatzen den garaian gure ikastoletan libre geratu diren plazak ez badira betetzen, aurretik matrikula eskaera egin zuten familiekin osatuko ditugu.**
- **Euskal Hezkuntza Sistema osatzen dugun ikastetxe guztiok matrikulaziorako baldintza berak izatea exijitzen dugu.**
- Familiek eta ikastolek **helegiteak** aurkeztuko dituzte ohar honetan jasotako argudioak baliatuz.

### **Prozesua Zarautzen:**

Esan dugun moduan, 23-24 ikasturteko matrikulazio prozesua korapilatsua izan zen Hezkuntza komunitate osoarentzat, eta bereziki, zenbait ikastolentzat. Tartean, Salbatore Mitxelena Ikastolarentzat. Argitu dezagun Zarautzen gertatutakoa:

**2023ko otsailean**, matrikulazio epearen aurretik, Hezkuntza Sailak, ageriko arrazoirik gabe, **2 lerrota mugatu zuen Salbatore Mitxelena ikastolaren matrikulazioa**, ordura arteko plangintzetan 3 lerro esleituta zituenean. Ageriko arrazoirik gabe diogu, hain zuen ere, herrian aurreko ikasturtean baino 20 ume gehiago zeudelako matrikula egiteko adinean (159 haur 2022an, 179 haur 2023an) .

Zarautzen 4 ikastetxe ditugu, eta aldaketa txiki batzuk gorabehera, urtero antzeko matrikulazio ehunekoak mantentzen dira, Ikastolarena %30aren bueltan. 2023ko datuak ere horrela izan ziren eta **55 familiak egin zuten Ikastolaren aldeko apustua**, hau da %30ek berriro ere.

Datu objektibo horiek ikusirik, **Salbatore Mitxelena Ikastolak 2 geletako muga zuzentzeko eskaera egin zion Hezkuntza Sailari**; baina ezezko borobila jaso zuen. 23-24 ikasturteko Haur Hezkuntzako 3 urtekoen plangintza, 22-23 ikasturtean itundutako kopuru bera izatea berretsizuen Hezkuntza Sailak. (22-23 Ikasturtean matrikulazio adinean zeuden ume kopurua dela eta nahikoa izan zuen Ikastolak 2 lerrorekin, baina plangintzan 3 lerroko baimena zuen). Une horretatik aurrera, erreklamazio eta alegazio segida amaiezin bat eman zitzaion hasiera.

**2023ko maiatzean**, ulertu genuen alferrikakoak izan zirela ordura arteko ahalegin guztiak: Hezkuntza Sailak erabakita zuen 8 familia horiek ikastolatik kanporatzea. Bide administratiboa jorratzen jarraitu arren, **egoerari aurrez aurre heltzeko unea iritsi zitzaigun**.

Hezkuntza Sailak kanpoan utzitako familiek ikastolako komunitatearen parte izateko nahia berretsi zuten eta bilera amaiezinen ondoren, eta Ikastolen Elkarteak hartutako konpromisoen babesarekin, **Zarauzko ikastolako komunitateak (544 familia) erabaki zuen gure komunitatearen eta proiektuaren parte izan nahi zuen orok atea zabalik izango zituela gurean**.

Hezkuntza Sailak ezarritako justifikaziorik gabeko murriketei planto egiteko hautua egin genuen beraz, eta, horrekin batera, gure hezkuntza proiektua hautatu zuten familien aldeko apustuari eutsi genion.

**2024-2025 ikasturterako matrikulazioan**, bigarren saiakera bat egin zuten familia horiek, eta kasu hartan 55 izan beharrean **58 izan ziren Zarauzko Ikastola hautatu zutenak**, eta **beste bizpahiruk ere hautatuko zuketen** matrikulazio murriketaren gatazka zabalik egon izan ez balitz. Berriz ere alferrikako erreklamazio eta alegazio sorta. EZEZKOA Hezkuntza Sailak. Baino Ikastolak bere bidea berretsi du; ez dizkio inoiz inori atea itxi eta ez dizkio itxi nahi.

*Gure galdera da: ikasturte batetik bestera herrian 20 haur gehiago egoteak ez dio irizpide horri eragiten? Zarauzko jaiotza tasaren joera positiboak ez dio eragiten irizpide horri?*

**Gogora dezagun aginduak dioena:** "Eskatzaileen zerrenda argitaratzearekin batera, Hezkuntzako lurralte-ordezkariek agindu honek araututako onarpen-prozesuan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzari jakinaraziko diote maila eta hizkuntza-eredu bakoitzean matrikulatu ahal izango duten talde-kopurua eta behin betiko ikasleen gehieneko kopurua. **Zenbaki hori EGOKITU eta DOITU egingo da, ikastetxe jakin horrek maila eta hizkuntza-eredu bakoitzean LEHEN AUKERA gisa aukeratu duten ESKAERA KOPURU GUZTIAREN ARABERA**".

**2025-2026 matrikulazio prozesuaren atarian**, duela aste batzuk, ikuskaritzako zenbait langile etorri ziren gure ikastolara. Langileak, gurasoak eta haurrek jazarriak sentitu gara, miatuak, zelatatuak, erregistratuak. Ikuskapen horren ondorioz, Hezkuntza Sailak **gu zigortzeko prozedura jarri du martxan**, ustezko adiskidetze bilerak medio eta prozedura horri amaiera eman berri zaiolako deitu dugu gaurko prentsurrekooa.

**Zer salatzen dugu:**

- Salatu nahi dugu **zigortze prozedura hau boterekeriaz garatu duela Hezkuntza Sailak.**
- Salatu nahi dugu **ustezko "adiskidetze" horretara iristeko ezarri zaizkigun "bilerek" ez zutela ezer adiskidetzetik.**
- Salatu nahi dugu **sinatu duguna ez dela akordio bat izan.** Ume horiei, beraien familieei eta ikastolari berari kalte larriagoak ekiditeko ez baitzegoen hura sinatu beste aukerarik.
- Salatu nahi dugu **ezarri zaigun 140.000€-ko isuna bidegabea dela**, ikastolak prozesu honetan ez baitu inolako diru-iruzurrik egin, inongo momentutan ez dugu ez-zegokigun diru publikorik jaso.

Baina prentsurreko honen bitartez ez dugu bakarrik Salbatore Mitxelena Ikastolaren egoera salatu nahi, badugu zer gehiago esateko.

- Izan ere, matrikulazio agindu berriaren ondorioz eta legez inon ez bada aipatzen ere, **ikastoletan matrikulatzeko ikasle kopurua mugatu egin du Hezkuntza Sailak.**
- Zaurgarritasun indizea orekatzeoko Hezkuntza Sailak proposatutako ikasle "trasbasearen" ondorioz, **Ikastoletan plaza libreak izanda ere, familia ikastolazale batzuk Ikastoletan ezin matrikulatu gelditu direla** ere aditzera eman nahi dugu.
- Honi gehitu behar zaio **zaurgarritasuna orekatzeko ikasle "trasbasea" ez dela behar bezala gauzatu.** Eta Ikastolek galdu duten ikasle kopurua baino gutxiago jaso dutela.
- Bestalde, **ikaspostuak planifikatzeko garaian irizpide desberdinak erabiltzen ari da Hezkuntza Saila sarearen arabera.** Hau dela eta, **Hezkuntza Zerbitzu Publikoa eskaintzen dugun ikastetxe guztiei trataera bertsua ematea aldarrikatzen dugu.**
- Bestalde, **zaurgarritasun indizea eta ikasleen izaera zaurgarria neurtzeko irizpideen opakotasuna eta objektibotasun eza ere**

### ***agerian daude***

- Eta azkena, ***agindua ez da landu alor honetako eragileekin.***

### **Hemendik aurrera, zer?**

Gaurtik aurrera, isunari aurre egiteko diru-bilketa ekintza desberdinak jarriko ditu martxan Salbatore Mltxelena Ikastolak. Horietako bat diru-ekarpen boluntarioak egitea izango da eta, horretarako, ondorengo kontu-korrontea zabaldu dugu:

**ES73 2095 5212 1091 2486 7983**

Zalantzak ez dugu isunari eta gaur gaurko egoerari aurre egingo diogula, baina oso kezkatuta gaude, arazo hau ez baita hemen bukatu. Zarautzen jaiotza tasa igotzen ari da. Ezarri zaigun matrikulazio mugarekin 2023-2024 ikasturteko arazoa errepiatu egin daiteke behin eta berriz.

Matrikulazio mugak nabarmen ahultzen du etorkizuneko ikastola. Azken urteetako hainbat erabaki eta mugimenduk Ikastolak ahuldu eta desartikulatzea dute helburu. Baina jokabide honekin ez dira bakarrik Ikastolak mugatzen, euskara, euskal kultura eta Euskal Herria zigortzen dituzte, gure proiektua nazionala delako. Guk argi dugu: Euskal Herria ezin da Ikastolarik gabe ulertu eta Ikastolak ezin dira herrikin gabe ulertu.

Jakin badakigu garrantzitsua dela segregazioa ekiditeko neurriak hartzea eta jaiotza tasaren beherakadaren ondorioz eskola maparen banaketa aldatuko dela, eta badakigu horrek planifikazioa gauzatze aldera aldaketak ekarri behar dituela. Baina planifikaziorako mugak ez zaizkigu berdin ezartzen Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa eskaintzen dugun hezkuntza sare guztiei, eta hori horrela den bitartean, Ikastolok ateak irekitzen jarraituko dugu gure hezkuntza ereduak aukeratzen duten familia orori. Horrela adostu genuen Ikastolok 2024ko ekainaren 22an Iruñean ospatu genuen 7. Batzarrean.

Ameslariak gara eta orain ere horretan dihardugu, indartsu, Euskal Herri osoan loratuko diren kimu berrien haziak ereiten. Temati jarraitzen dugu eta autoeraketaren bitartez herriz herri Euskal Herri osoarentzat proiektua eraikitzen jarraituko dugu. **GU IKASTOLA, Euskal Herria eraikitzen.**

## El Departamento de Educación sanciona injustamente a la ikastola Salbatore Mitxelena con una multa de 140.000 €.

En 2023, el Departamento de Educación llevó al extremo su persecución y recortes contra la ikastola de Zarautz, generando graves perjuicios cuantitativos y cualitativos.

*Esta sanción no afecta únicamente a la ikastola Salbatore Mitxelena de Zarautz, sino que es un ataque directo contra todo el movimiento de las ikastolas, la única red nacional que abarca los siete territorios.*

-----

Para contextualizar esta denuncia que hoy trasladamos mediante esta rueda de prensa, consideramos necesario, en primer lugar, exponer los cambios que se han dado en los últimos años en el proceso de matriculación y explicar los hechos que han llevado a estos cambios.

### El proceso de matriculación desde 2023:

**En enero de 2023**, en el contexto de la elaboración de la ley de educación, el Departamento de Educación publicó la orden de admisión de alumnado para el curso 2023-2024. Dicha orden incluía novedades respecto a las órdenes anteriores, con los objetivos declarados de **equilibrar la distribución de alumnado vulnerable y ajustar la oferta a la demanda**. Para ello, por primera vez, **se establecieron criterios para el índice de vulnerabilidad y nuevos criterios de baremación**. La matriculación de 2023 se llevó a cabo bajo estos principios y condiciones.

El proceso de matriculación fue conflictivo y complicado tanto para la comunidad educativa como para las ikastolas. **En marzo de 2023, debido a los problemas surgidos, las ikastolas de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa se reunieron en asamblea y acordaron varios puntos:**

- Mostramos conformidad con los principios generales y objetivos recogidos en la orden de admisión del Departamento de Educación.
- Denunciamos que los criterios básicos establecidos en la orden de admisión para el curso 2023/24 no se estaban cumpliendo.

- Subrayamos la falta de transparencia en el proceso de fijación del índice de vulnerabilidad.
- Denunciamos que el flujo de alumnado no se estaba llevando a cabo de manera equilibrada.

Como resultado, las ikastolas de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa decidimos tomar las siguientes medidas:

- En caso de que las plazas libres en nuestras ikastolas no se cubran durante el período de flujo de familias, completamos estas plazas con las familias que habían solicitado previamente la matriculación.
- Exigimos que todas las instituciones educativas que forman parte del Sistema Educativo Vasco tengan las mismas condiciones de admisión.
- Las familias y las ikastolas presentarán recursos utilizando los argumentos recogidos en esta declaración.

### **El proceso en Zarautz:**

Como hemos mencionado, el proceso de matriculación del curso 2023-2024 fue especialmente complicado para algunas ikastolas, incluida Salbatore Mitxelena. Veamos lo ocurrido en Zarautz:

**En febrero de 2023**, antes del inicio del período de matriculación, **el Departamento de Educación limitó sin razón aparente la matriculación de la ikastola Salbatore Mitxelena a dos líneas**, cuando en los planes anteriores tenía asignadas tres. Decimos sin razón aparente porque **en el municipio había 20 niños más en edad de matriculación que el curso anterior** (159 niños en 2022, 179 en 2023).

En Zarautz hay cuatro centros educativos y, con pequeñas variaciones, los **porcentajes de matriculación suelen mantenerse similares** cada año, situándose **el de la ikastola en torno al 30 %**. En 2023, 55 familias apostaron por la ikastola, es decir, **el 30 % nuevamente**.

Ante estos datos objetivos, Salbatore Mitxelena solicitó al Departamento de Educación que corrigiera la limitación a dos líneas, recibiendo una negativa rotunda. El Departamento ratificó que la planificación de Educación Infantil para niños de 3 años en el curso 2023-2024 sería la misma que en el curso 2022-2023, a pesar de que el aumento del número de niños justificaba claramente la necesidad

de tres líneas. Desde ese momento, se inició una interminable sucesión de reclamaciones y alegaciones.

**En mayo de 2023**, entendimos que todos los esfuerzos realizados hasta ese momento habían sido en vano: el Departamento de Educación había decidido excluir a esas 8 familias de la ikastola. Aunque continuamos explorando vías administrativas, **llegó el momento de enfrentar la situación directamente**.

**Las familias excluidas por el Departamento de Educación reafirmaron su deseo de formar parte de la comunidad de la ikastola.** Tras reuniones interminables y con el apoyo de los compromisos asumidos por Ikastolen Elkarte, la comunidad de **la ikastola de Zarautz (544 familias)** decidió que **todas las personas que desearan formar parte del proyecto y la comunidad tendrían las puertas abiertas**.

**Por tanto, optamos por plantar cara a las restricciones injustificadas impuestas por el Departamento de Educación y apostar por las familias que eligieron nuestro proyecto educativo.**

**En la matriculación del curso 2024-2025, estas familias realizaron un segundo intento**, y en esta ocasión **fueron 58 las que eligieron la ikastola de Zarautz**, y otras dos o tres familias también lo habrían hecho de no ser por el conflicto generado en torno a las restricciones de matriculación. Una vez más, una sucesión de reclamaciones y alegaciones. **Una vez más, una negativa por parte del Departamento de Educación.** Pero la ikastola ha reafirmado su postura: nunca ha cerrado sus puertas a nadie y no tiene intención de hacerlo.

Nos preguntamos: ***¿El hecho de que haya 20 niños más en el municipio de un curso a otro no afecta a estos criterios? ¿El aumento positivo de la tasa de natalidad en Zarautz no afecta a dichos criterios?***

Recordemos lo que establece la orden:

***"Al publicar la lista de solicitantes, los delegados territoriales de Educación notificarán a cada centro educativo participante en el proceso de admisión regulado por esta orden el número de grupos y el número máximo definitivo de estudiantes que podrá matricular en cada nivel y modelo lingüístico. Este número se ADECUARÁ y AJUSTARÁ según el número total de solicitudes que hayan elegido el centro como PRIMERA OPCIÓN".***

A las puertas del proceso de matriculación 2025-2026, hace unas semanas, varios inspectores visitaron nuestra ikastola. Trabajadores, familias y niños nos sentimos acosados, vigilados y registrados. Como consecuencia de esa inspección, el Departamento de Educación ha iniciado un procedimiento sancionador contra nosotros. Hoy convocamos esta rueda de prensa porque ese procedimiento ha concluido recientemente tras las supuestas reuniones de "reconciliación".

### Qué denunciamos:

- Denunciamos que **este procedimiento sancionador ha sido desarrollado de manera autoritaria por parte del Departamento de Educación.**
- Denunciamos que **las supuestas reuniones para llegar a una "reconciliación" no tenían nada de reconciliación.**
- Denunciamos que **lo que hemos firmado no es un acuerdo.** No teníamos otra opción que firmar para evitar daños mayores a los niños, sus familias y la propia ikastola.
- Denunciamos que **la multa de 140.000 € impuesta es injusta**, ya que la ikastola no ha cometido fraude alguno ni ha recibido en ningún momento dinero público indebido.

Pero a través de esta rueda de prensa, no solo queremos denunciar la situación de la Ikastola Salbatore Mitxelena, **también tenemos más cosas que decir.**

- De hecho, **como consecuencia de la nueva orden de matriculación y aunque no se menciona en ninguna parte de manera explícita, el Departamento de Educación ha limitado el número de alumnos que pueden matricularse en las ikastolas.**
- Queremos informar también de que, **debido al "trasvase" de alumnado propuesto por el Departamento de Educación para equilibrar el índice de vulnerabilidad, algunas familias ikastolazales no han podido matricular a sus hijos en las ikastolas, a pesar de haber plazas libres.**
- A esto hay que añadir que **el "trasvase" de alumnado para equilibrar la vulnerabilidad no se ha llevado a cabo de manera adecuada.** Las ikastolas han recibido menos alumnos de los que han perdido.
- Por otro lado, **el Departamento de Educación está utilizando criterios diferentes para planificar los puestos escolares según la red educativa.** Por ello, **reivindicamos que se dé el mismo trato a todos los centros educativos que ofrecemos un Servicio Público de Educación.**

- Asimismo, **queda en evidencia la opacidad y la falta de objetividad en los criterios utilizados para medir el índice de vulnerabilidad y la condición vulnerable del alumnado.**
- Por último, **la orden no ha sido trabajada con los agentes implicados.**

### A partir de ahora qué

A partir de hoy, **la Ikastola Salbatore Mitxelena pondrá en marcha distintas acciones de recaudación de fondos para hacer frente a la multa.** Una de ellas será la realización de aportaciones voluntarias, para lo cual hemos abierto la siguiente cuenta corriente:

**ES73 2095 5212 1091 2486 7983**

No tenemos ninguna duda de que haremos frente a la multa y a la situación actual, pero estamos muy preocupados, ya que este problema no termina aquí. La tasa de natalidad está aumentando en Zarautz. Con el límite de matriculación que se nos ha impuesto, el problema del curso 2023-2024 puede repetirse una y otra vez.

Las limitaciones de matriculación debilitan significativamente las ikastolas en el futuro. Varias decisiones y movimientos de los últimos años tienen como objetivo debilitar y desarticular las ikastolas. Pero con este comportamiento no solo se limita a las ikastolas, también castigan al euskara, la cultura vasca y Euskal Herria, ya que nuestro proyecto es nacional. Nos queda claro que no se puede entender Euskal Herria sin las ikastolas, y las ikastolas no pueden entenderse sin el pueblo.

Somos conscientes de la importancia de tomar medidas para equilibrar la segregación y que la caída de la tasa de natalidad conlleva un cambio en la distribución del mapa escolar, y sabemos que esto debe generar cambios en la planificación. Pero los límites establecidos para la planificación no se aplican de la misma manera a todos los centros educativos que ofrecemos el Servicio Público de Educación en la red, y mientras esto sea así, las ikastolas seguiremos abriendo las puertas a todas las familias que elijan nuestro modelo educativo. Así lo acordamos en la 7<sup>a</sup> Asamblea celebrada por las ikastolas el 22 de junio de 2024 en Iruña.

Seguimos siendo soñadores y seguimos en ello, con fuerza, sembrando las semillas de los nuevos brotes que crecerán en todo Euskal Herria. Seguimos firmes y, mediante la autogestión, seguimos construyendo un proyecto para toda Euskal Herria, pueblo por pueblo. **GU IKASTOLA, Euskal Herria eraikitzen.**